

**2020KO OTSAILAREN 27AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zazpia

**HILABETEA:** Otsaila.

**URTEA:** Bi mila eta hogei.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko seiak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

**BILDUAK:** Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

**1.- AURREKO AKTA.** 2019ko abenduaren 19ko aktaren onespena.

2019ko abenduaren 19ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

**2.- OBRAK ESLEITZEA.** "Alkartasuna Lizeoa" HLHIko areto balionaiztunaren ebakuaziorako bideak egokitzeko obrak (2019PROB0007).

Ezagutzera eman da, 2020-01-20ko kontratazio mahaiaren akta, hau da:

*"2019-12-12ko bileran tratatutakoari jarraituz, ezagutzera eman da JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS, S.L.ri lizitazioegin egindako bajagatik errekerimendua egin zitzaiola aurkeztutako eskaintza justifikatzeko eta 2019-12-20ko idatziaren bidez adierazi zuela ezin zuela justifikatu errekeritutako xehetasunen arabera.*

*Horren ondorioz, JAIZUBIA OBRAS Y SERVICIOS, S.L. enpresa lizitaziotik kanpo geratu da eta 2020-01-13ko txosten teknikoaren bidez adierazi da CONSTRUCCIONES URBYCOLAN, S.L.ren alde esleipen proposamena egitea dagokiola enpresa hau delako puntu gehien lortu dituen.*

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Gobernu Batzordea) ondorengo proposamena egiten dio:*

**Lehenik.** “Alkartasuna Lizeoa” HLHIko areto balionaiztunaren ebakuaziorako bideak egokitzeko obrak CONSTRUCCIONES URBYCOLAN, S.L.ri esleitzea.

**Bigarren.** Esleipena pleguen eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

**Hirugarren.** Esleipen prezioa: 86.959,26 € + BEZ (18.261,44 €).

**Lauugarren.** Exekutatzeko epea: hamar aste.

**Bosgarren.** Berme epea: urte 1 obrak behin betiko onartzen direnetik.

**Seigarren.** Kontratuaren arduraduna udal aparejadorea °izango da.

**Zazpigarren.** Esleipendunari errekeritzea, hamar laneguneko epean errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkezteko:

- Behin betiko fidantza, 4.347,96 €ko balioa duena.
- Erantzukizun zibileko poliza, 600.000,00 €koa.
- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak. Jarduera ekonomiko gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.

**Zortzigarren.** Fidantza aurkeztutakoan, behin betiko esleipena emango da eta jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**3.- ZERBITZUAK ESLEITZEA.** Beasainen bitzitza pertsonalaren, familiarren eta lanaren kontziliazio erantzunkidea sustatzeko HerriLab proiektuaren ekintza plana inplementatzeko eta ebaluatzeko berdintasun sailari asistentzia teknikoa ematea. (2019BOBE0005).

Proposamenaren berri eman baino lehen, Idazkariak esan du balorazio teknikoarekiko kontratazio mahaiaren akta errebisatu ondoren, lizitatzailari emandako puntuazioa ez dela zuzena.

Memoria teknikoaren 3. atalean baloratu beharreko zen, “organigrama eta pertsonalaren antolaketa adieraziz bakoitzak egin beharreko lanak eta koordinatzeko modua. Hau 5 punturekin baloratzen zen. Horren ordez baloratu dena da, langileek duten formazioa. Xehetasun hau ezin zen puntuatu, kaudimen tekniko modura eskatzen zelako eta kontuan izan zelako A kartazala aztertzerakoan.

Beraz, Memoria teknikoan 35 puntu izan ordez 30 izango lirateke. Egia da, modu honetan, memoria teknikoaren 3. atala baloratu gabe geratzen dela, baina lizitatzaila bakarria izanik eta C kartazala irekitzeko gutxienez 24,5 puntu lortu behar zirela, egindako proposamena balioduna izango litzateke.

Jarraian ezagutzera eman da, 2020-01-20ko kontratazio mahaiaren akta, hau da, baina esandakoarekin Memoria Teknikoaren puntuazioa 30eko izango litzateke eta hori da, hain zuzen ere, hemen islatzen dena:

“C kartazala ireki da (proposamen ekonomikoa) adieraziz urteko lizitazio prezioa, 41.322,31 €koa dela. Emaizta ondorengoa da:

**LIZITATZAILEA**

**ESKAINZA**

UTE IKERTALDE - IKERPARTNERS

35.495,86 € + BEZ

Enpresa lizitatzailleak guztira lortutako puntuazioa ondorengoa da:

<b>Lizitatzaillea</b>	<b>Memoria teknikoa</b>	<b>Eskaintza ekonomikoa</b>	<b>GUZTIRA</b>
UTE IKERTALDE - IKERPARTNERS	30	51	<b>81</b>

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Osoko Bilkura) ondorengo proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Beasainen bizitza pertsonalaren, familiarren eta lanaren kontziliazio erantzunkidea sustatzeko HerriLab proiektuaren ekintza plana inplementatzeko eta ebaluatzeko berdintasun sailari asistentzia teknikoa ematea, IKERTALDE- IKERPARTNERS denboraldirako enpresa elkarteari esleitzea.

**Bigarren.** Esleipena baldintza plegu administratibo eta tekniko pleguetan eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera, egiten da.

**Hirugarren.** Urteko esleipen prezioa: 35.495,86 € + BEZ.

**Laugarren.** Exekutatzeko epea: hiru urte. Kontratua beste urte betez luzatu daiteke.

**Bosgarren.** Kontratuaren udal arduraduna berdintasuneko zinegotzi delegatuari izendatu zaio.

**Seigarren.** Esleipendunari errekeritzea, hamar laneguneko epean errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik kontaktzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkezteko:

- Behin betiko fidantza, 5.324,38 €ko balioa duena.
- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak. Jarduera ekonomiko gaineko zergan alta emanda egotearen agiria, denboraldirako enpresa elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko.
- Denboraldirako enpresa elkartearen eraketa eskritura eta ordezkariaren ahalmena.

**Zazpigarren.** Fidantza eta beste dokumentuak aurkeztutakoan, behin betiko esleipena Alkateak emango du horretarako Gobernu Batzordeak baimenduta eta jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**4.- KONTRATUA LUZATZEA.** Beasaingo udalerrian antolatutako ekitaldietarako agertokiak eta karpak alokatzeko eta elementu horiek eta udal jabetzako antzeko beste elementu batzuk muntatzeko eta desmuntatzeko (elementu horiek egoki mantentzeko lanak barne) zerbitzuari buruzko kontratu administratiboaren luzapena. (2019ZEBO0013).

Puntu honetan ezagutzera eman da, Zerbitzuburuak emandako txostena:

**“AURREKARIAK**

*I.- 2019ko otsailaren 25en, Gobernu Batzordeak erabaki zuen, prozedura irekiaren bidez, Beasaingo udalerrian antolatutako ekitaldietarako agertokiak eta karpak alokatzeko eta elementu horiek eta udal jabetzako antzeko beste elementu batzuk muntatzeko eta desmuntatzeko (elementu horiek egoki mantentzeko lanak barne) zerbitzua kontratatzea, horretarako baldintza plegu administratibo eta teknikoa onartuz.*

*II.- Deialdia, kontrataziorako plataforman argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epean (2019-02-19), enpresa hau aurkeztu zen: MONTAI PRODUKZIOAK, S.L. Lizitazioan parte hartzea onartu egin zitzaion.*

*III.- Alkatea jaunak, 2019ko martxoaren 7an, kontratazio mahaiak 2019-02-25 horrela proposatuta eta Gobernu Batzordeak 2019-02-28ko erabakia kontuan izanik ebatzi zuen MONTAI PRODUKZIOAK, S.L. ren alde behin betiko esleipena egitea, adjudikaziodunak 2.570,34 €ko behin betiko fidantza nahiz errekeritutako beste dokumentazioa aurkeztu zituelako (zerga betebeharretan eta gizarte segurantzian eguneratuta egotearen agiriak, jarduera ekonomiko gaineko zergan alta emanda egotea eta erantzukizun zibileko poliza).*

*IV.- kontratua 2019ko martxoaren 15ean formalizatu zen.*

*V.- Kontratuaren hirugarren estipulazioak honako hau dio: "Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.*

*VI.- administrazio-pleguaren 25. artikulua arabera, "Kontratu honetan ez da aurreikusten prezioak berrikustea."*

**TXOSTENA**

*Kontuan hartuta:*

- Lizitazioan ez zela enpresa esleipenduna baino gehiago aurkeztu.*
- Urtean zehar ez dela inolako kontsultarik izan aldaketarik adierazten duenik eta, horren ondorioz, merkatuan interesa dagoela.*
- Baldintza ekonomikoei eutsiko zaiela.*
- MONTAI produkzioak, S.L. enpresak eskaintzen duen zerbitzua guztiz ona dela.*

Gobernu Batzordeari proposatzen zaio:

*Beasaingo udalerrian antolatutako ekitaldietarako agertokiak eta karpak alokatzeko eta elementu horiek eta udal jabetzako antzeko beste elementu batzuk muntatzeko eta desmuntatzeko (elementu horiek egoki mantentzeko lanak barne) zerbitzuari buruzko luzapena formalizatzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez andreak, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko zinegotziak adierazi du, bere ustetan lizitazio berria egin behar dela, nahiz eta txostena aldekoa izan, ikusita enpresa honekiko dauden zalantzak langileekiko baldintzak betetzeari buruz.

Nerea Manzisidor, Beasaingo EH Bildu taldeko zinegotzi andreak adierazi du beraiek ere ez direla kontratua luzatzearen aldeko eta nolabait ere kontratazio organoak ziurtasuna izan beharko lukeela langileen baldintzak betetzen direnari buruz. Guk jakin izan dugunez, esan du, langileek momentu oro prest egon behar dira lan egiteko, eta atzerritarrez baliatzen dira. Zalantza asko ditugu eta horren ondorioz, ez dugu onartzen.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dute errugabetasun-presuntzioa, beti kontuan izan behar dela.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), si la inocencia se presume, pero hay una investigación en marcha y lo que no deseamos es que se hable del Ayuntamiento de Beasain en los medios de comunicación, a razón de este contrato”.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Yo creo que el informe favorable del técnico, es algo a tener en cuenta.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, baina txostena zerbitzuarekiko da”. Gu haratago goaz”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Beasaingo EH Bildu eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da, kontratua beste urte betez luzatzea. Hau amaitutakoan ez da luzatzeko aukera gehiago izango.

## **5.- OBRA ZIURTAGIRIAK.** (2018PROB0009)

- Usurbe zinea berritzeko obrei dagokion 1. obra-ziurtagiria.

Aho batez onartu zuen, “**Usurbe zinea berritzeko**” obrei buruzko obren 1. ziurtagiria, **228.446,22 €**koa (BEZ barne).

#### **6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.